

etxerat

euskal errepresaliatu politikoen senide eta lagunak
familiares y allegados de represaliados políticos vascos
Parents et amis de prisonniers et réfugiés politiques basques



hilabetekaria
2 0 1 3 a p r i l a

aurkibidea

apirila

3

sakabanaketa

5

osasun eskubidea

6

salbuespen neurriak

9

espetxeetan

11

iheslariak

16

senide eta lagunak

17

askatasunak, espetxeratzeak,
eta leku aldatzeak

18

hilabeteko gaia

20 Ekainak 1-2: Elkartasun asteburua

etxerat

28

agenda

23

eranskinak

23

apirila

Etxeratek martxoko hilabetekaria publikatu eta ordu gutxitara Xabier Lopez Peñaren heriotzaren berri izan genuen. Martxoaren 30ean, eguerdian bere familia Xabier bisitatzera joan zen Parisko Pitié-Salpêtrière ospitalera, baina, bertan espero ez zuten ezusteko ilun batekin egin zuten topo: Xabier autopsia egiteko mahai batean aurkitzen zen. Inork ez zien bere heriotzaren berri eman, nahiz eta 12 ordu lehenago hil zen. Ez zuten ez mediku agiririk, ez heriotza ziurtagirik. Eta ez zieten gorpua ikusten utzi. Honela, bere senideek Xabierren heriotza jaso zuten, gertatutakoa ulertu ezinik eta onartu ezinik; izan ere, espetxeak, ospitaleak eta Frantziako autoridadeak hainbat jarrera onartezin izan zituzten. Senideak ezintasun, iluntasun eta krudeltasun egoera batean sartu zituen jarrera izan zen, gainera.

599

Xabierrek martxoaren 9an izan zuen azken bisita bere senideekin, Fleury espetxean. Bi egun beranduago Corbeil-Essonne ospitalera eraman zuten. Eta 13an, hasiera batean arazo handiegirik izan beharko ez lukeen arren, kateter bat ezartzean izandako komplikazioak direla eta Pariseko Pitié-Salpêtrière ospitalera eraman zuten. 19an Fleuryko bere kideek senideak ohartarazi zituzten Xabier ospitalera atera

zutela eta ez zela itzuli esanaz. Une horretatik aurrera, Xabier Lopez Peñaren senideak, gertukoak eta abokatuak hainbat zailtasunen aurrean aurkitu ziren: bere egoera zein zen jakiteko, bere heriotzaren inguruko berriak izateko (hil zela ere ez zieten jakinarazi), autopsian konfiantzazko mediku bat egoteko jasotako ezezkoa, lau egun luze pasa behar izatea krsital bat tarteko zela bere gorpua ikusi ahal izateko...

Apirilaren 12an, Xabier Lopez Peñaren heriotza gertatu zenetik 13 egunetara, bere gorpua familiako horma-hilobian sartu zuten. Bere senideek, ordea, ez dute ospitaleko ingresoaren agiririk, ez eta heriotza ziurtagiririk ere, eta Sondikako aireportura iritsi zenean ezin izan zuten bere gorpua ikusi. Orain, bigarren autopsia bat egin ahal izatekobaimenaren zain daude, bertan Xabierren gorpua dagoela baieztatzeko eta bere heriotzaren zergatia ezagutu ahal izateko.

teko.

Espetxeratze arinduan zegoen Angel Figeroa apirilaren 14an hil zen, eta 30ean Xabier López Peña. Bi asteren buruan bi euskal preso politiko hil ziren. Bi heriotza hauek eskubideen urraketa argia oinarri duen espetxe politika baten ondorio izan dira; sufrimendua eragiten jarraitzen duen espetxe politika batenak, hain zuzen ere.

Bestalde, Jaiki Hadi medikuen elkarteak informe medikuak eta bere prostatako adenomakartzinomaren tratamenduaren ezaugarriak aztertu ondoren, erabaki du Tafallako Ventura Tome preso gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoek zerrendan sartzea erabaki du. Ventura egun Murcia I espetxean dago.

Martxoaren 30ean, Jon Crespo presoaren bi lagunek istripu bat izan zuten, Salamancara bisitara zihoazela; 20 egun beranduago, aurtan sakabanaketak eragin duen laugarren istripuak Monterroson preso dagoen Bigarren Ibarraren anaiaren eta alabaren bizitza arriskuan jarri zuen. Azken istripu hau kontuan hartuta, 9 senide eta lagunek izan dituzte istripuak urteko lehen lau hilabete hauetan. Hilabetekari honetan euskal preso politikoek senideok bisitetara bidetara do bueltan izaten ditugun istripuak jasotzen dituen atal bat izateak argi erakusten du senideok zer prezio ordaindu behar izaten dugun preso dauden gure gertukoak bisitatzeko dugun eskubideagatik.

Espetxe politikak gure osasun eta bizitzetan izugarritzko eragina du, baina, guretzat hain garrantzitsua den errepresaliatuekiko elkartasunak ere bere lekua izango du egutegian. Maiatzaren 9an Bilboko kaleetan, 18an Euskal Herriko plaza guztietan; eta ekainaren 1ean Aurrabiako kontzertuetan eta 2an Oartzunen izango den elkartasun lasterketan defenda ezina den espetxe politika eta honen ondorioak kalera atera eta salatuko ditugu, eta gehiengo sozial batek eskatzen duen salbuespeneko neurrien amaiera ere eskatuko dugu.

Bilbon, Aurrabian, Oartzunen eta Euskal Herriko plaza guztietan egongo gara. Espainiar eta frantziar estatuek gure eta gure senideen eskubideen urraketa helburu duen espetxe politika aplikatzen jarraitzen dute. Baina, gu mugitu egingo gara. Elkartasunagatik eta eskubideengatik.

ETXEAN NAHI DITUGU!!

sakabanaketa

599 euskal preso politiko 80 espetxetan sakabanatuta daude

- 438 preso espainiar estatuko 45 espetxetan sakabanatuta
- 125 preso frantziar estatuko 29 espetxetan sakabanatuta
- 19 preso Euskal Herriko 3 espetxetan daude
- 4 preso Ingalaterrako espetxe batean
- Preso 1 Ipar Irlandako espetxe batean
- Preso 1 Portugalgo espetxe batean
- 10 preso espetxeratze arinduan, pairatzen dituzten gaixotasunak direla eta
- Preso bat konfinatua Autunen (Frantzian)

- **95** euskal preso Euskal Herritik **1000 eta 1.100** kilometrotara dauden espetxeetan
- **144** euskal preso Euskal Herritik **800 eta 1.000** kilometrotara dauden espetxeetan
- **116** euskal preso Euskal Herritik **600 eta 800** kilometrotara dauden espetxeetan
- **130** euskal preso Euskal Herritik **400 eta 600** kilometrotara dauden espetxeetan
- **78** euskal preso Euskal Herritik **400** kilometrotara dauden espetxeetan
- euskal preso **bat** Euskal Herritik **900** kilometrotara **konfinatuak**
- **6** euskal preso Euskal Herritik urrun dauden 3 herrialdeetako espetxeetan

osasun eskubidea

Martxoaren 30ean, **Xabier Lopez Peña euskal preso politikoaren heriotza-
ren berri** izan genuen, minak kolpatutako bere familiaren ahotik. Xabier bakarririk hil zen Pariseko ospitale batean, hainbat egun desagertuta egon ostean, etxetik 1000km-tara eta edozein pertsonari eskubidez dagokion behar bezalako osasun asistentzia izan gabe. Berak eta bere familiak zein abokatuak jasandako tratua erabat onartezina eta bidegabea da, egun aplikatzen den salbuespeneko espetxe politikaren bortizkeriaren ondorio gordin eta krudelena.

15

Mendeku logika batetik aplikatzen den espetxe politika honek hil egiten du. Urte gehiegi daramagu Etxerat Elkartetik hau adierazten; ondo baino hobeto baitakigu, zigor amaigabeak, behar bezalako osasun asistentzia ez izatea eta eritasun larriak dituzten gure senide presoak ez askatzea, heriotza zigor bilakatzen dela lehenago edo beranduago. Xabierren heriotza horren adibide garbi bat da, eta hilabete lehenago jazotako Angel Figeroa-rena, beste bat.

Ondorengo egunetan Xabierren familiartekoen hitzak eta testigantza ere entzun ahal izan genituen. Lehen pertsonan bizitako sufrimendua nabaria zen, beraien hitzetan. Hemen bere anaia Juanma eta arreba Begoñak, apirilaren 8an emandako testigantza:

“Xabier Lopez Peña nire anaia oso ondo zegoen, beraz, ez zuen bihotzeko bat edo odol-isuri bat izan espetxean. Martxoaren 9an nire amarekin, arrebarekin eta koinatuarekin bisita izan zuen. Martxoaren 11n Xabier, Fleury-Merogis-en preso zen, eta Corbeil-Essonne-ko ospitalera eraman zuten eraman zuten kontrol mediku bat egiteko, inongo arazorik gabe. Martxoaren 13an, Corbeiletik Pariseko Pitié-Salpêtrièreko ospitalera eraman zuten, eta 14an bihotzetik operatu zuten, by-pass bat egin zioten. Honen aurretik Corbeileko ospitalean kateter bat egin zioten, bere zainaren egoera zein den ikusteko. Arazoak egon omen ziren, eta orduan eraman zuten Pitiéra. Denbora tarte guzti honetan ez senideek eta ezta bere abokatu Yolanda Molinak ere ez genuen ezer jakin berataz. Martxoaren 15ean, bere presondegiko kideek abisatu zuten familia, esanez Xabier ez zela espetxera itzuli. Abokatua espetxeko zuzendariarekin harremanetan jarri eta ezer ez zekiela esan ziguten. Inork ez zigun ezer esaten, eta astebetetz horrela egon ginen, ezer jakin gabe.

Asteartean, martxoaren 19an, abokatuak deitu gintuen Pariseko ospitalean zegoela jakin ahal izan zuela esateko. Bertara joan eta han pisuz pisu ibili ziren bere bila, zeren inork ez zien esan nahi non zegoen. Ehunka buelta eman eta gero lortu zuten non zegoen jakitea, baina, abokatuak deitu zigun esateko familiari ez zigutela uzten bera ikusten. Abokatuari baimena eman zioten. Berak martxoaren 20an lortu zuen, guk, senideok Xabier ikusteko baimena izatea, eta hurrengo egunean bertan nire arreba, anaia eta ni bera ikustera joan ginen. Baina, hara heldu eta esan ziguten ezin genuela ikusi. Ebakuntza bat egin ziotela eta ezinezkoa zela. Abokatuak epailearekin hitz egin ondoren, berarekin ordu erdiko bisita izatea lortzen dugu. Bera ez zegoen hiltzeko zorian, ezta gutxiagorik ere. Esan zigun begian eta mintzamenean eragina izan zuela egin zioten ebakuntzak. Ebakuntza hori egin zion medikuarekin hitz egitea lortu genuen, asko kostatzen ondoren. Kateterra ondo atera zela esan zigun, baina, Corbeiletik Pitiéra jada ukitua etorri zela. Ebakuntza mota hori gaizki ateratzeko aukera %2a zela ere aitortu zigun. Familia aurrera aterako zenaren itxaropenarekin gelditu ginen.

Hurrengo egunean ere bisitara joan ginen, eta aurreko egunean berarekin egon arren, esan zigun Xabier ez zegoela bertan. Baina, mediku bat agertu zen eta anai-arreba bakoitzak ordu erdiz ikustea lortu genuen. Larunbatean, martxoaren 23an familia etxera itzuli ginen. Bertan abokatu eta Ainhoaren ahizpa gelditu ziren. Gu ilusionaturik bueltatu ginen, ondo jarriko zela uste genuen.

Honen ondotik, ordea, martxoaren 25ean, astelehena, zegoen egoeran egonda ere, Xabier kardiologiatik atera eta ospitaleak duen espetxe atalera pasa zuten, inongo makina edo aparataturik gabe. Ostegunean ospitaleko kartzelara joan, eta urgentziaz neurologiako zaintza berezietara eraman zuten. Berriz ere, ez zuten inor abisatu. Neurologoak abokatuari esan zion buruko odol-isuria izan zuela. 29an zaintza berezietan zegoen, baina, medikuak esan zigun errehabilitazioarekin ondo jarriko zela. Azken aldiz bisitatu ahal izan genuen egun horretan. Hurrengo egunean bisitara joan ginen, 13:00etan eta Xabier hilda zegoen. Martxoaren 30ean, goizaldeko ordu batean hil zen. Bakarririk hil zen, gu ospitaletik 5 minututara geundelarik. Medikuak esan zigun aurreko eguneko 20:00etan egin zuela okerrera bere egoerak. Nahikoa denbora izan zuten bere egoeraren okertzearen eta heriotzaren berri guri emateko. Baina, ez zuten hori egin! Hurrengo egunean, bisita genuen orduan, bere ohea hutsik zegoela ikusi genuenean jakin genuen Xabier hilda zegoela!

Ez ziguten heriotzaren zergatiaren berririk eman. Depositura joan ginen bere gorpua ikustera, baina, debekatu egin ziguten fiskalaren aginduz. Lau egun beranduago ikusi genuen bere gorpua kristal bat tarteko genuela. Autopsian, berriz, ez dute utzi konfiantzazko medikurik egotea.

Zalantzaz eta galderaz betetako 20 egun izan dira, sufrimenduz betetako 20 egun Xabierrentzat, inpotentziaz betetako 20 egun”.

Bestalde, hilabetekari honetako sarreran aipatu bezala, Jaiki Hadi medikuen elkarteak erabaki du Ventura Tome gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoentzerrendan, eta beraz, aske behar luketen presoentzerrendan sartzea, duen gaixotasunagatik eta gaixotasun horrek eskatzen duen tratamendua dela era. Beraz, 15 dira jada egoera horretan aurkitzen diren euskal preso politikoak.

salbuespen neurriak

bizi osorako espetxe zigorra baldintzapeko askatasuna

Azpitarratzekoa da frantziar estatuan bizi osorako kondenek duten berezitasuna. Frantzian ez da urte kopuru maximorik, Europako beste estatuetan bezala. Biziar-teko zigorrera ("perpétuité" deitzen duten neurria) kondenatua den preso batek baldintzapeko askatasuna eska dezake 15 urteren buruan (edo "segurtasun kondena" bete ondoan, kondenari neurri hau gehitzen bazaio), baina erabakia Kondenen Aplikapenen Epailearen esku da, eta honek etengabe uka dezake. Preso sozial batzuek kasik 50 urte pasa dituzte Frantziako kartzeletan.

70

Euskal preso politikoen artean, 4 neurri honen pean aurkitzen dira gaur egun : hilabete honetan 24garren urtean sartzen diren **Jakes Esnal, Frederik Haranburu eta Ion Kepa Parot**, eta berriki kondenatu duten **Mikel Karrera**.

Beste hainbat euskal presori bizi arteko zigorra eman diete "de facto" oso kondena luzeekin (hala nola Mikel Karrerarekin batera kondenatu duten **Saioa Sanchez** : 28 urte) edota kondena ezberdinak akumulatuz (adibidez **Lorentxa Beyrie** 5 urte + 5 urte + 5 urte + 10 urte + 7 urte = 32 - 27 urtera ekarriak kondenaren nahasketa eskatu ondotik; edo **Didier Agerre** : 18 urte (1/2 segurtasunarekin) + 3 urte + 17 urte (2/3 segurtasunarekin) + urte 1 (ADN ematea uko egiteagatik) = 39 urte - kondenaren nahasketa galdegina izango da; ...eta abar luze bat frantziar estatutan).

Hilabete honetan, Ion Kepa Parot-en laugarren baldintzapeko eskaera onartua izan da (oso neurri zorrotzekin) baina fiskalak erabakia errekurritu ondoren, erantzuna itxaron behar izan zuten Ion Kepa eta bere senideek. Errekurtso hori apirilaren 25ean aztertu zuten, eta erantzuna maiatzaren 30ean jakinaraziko dute.

Espainiar estatuan gure senide eta lagunei bere garaian epaitegiek zigor bat ezarri

144

zieten **hasiera eta amaiera data zuten zigorrak**. 2006az geroztik, Espainiako Auzitegi Gorenak 197/2006 dotrina aplikatzen du. Eskubidearen kontrakoa izan arren atzeraeraginarekin aplikatzen du, hau da, preso politikoak bizi osorako zigortzen ditu, berez, zigortuak ez zeuden zigor batera, eta ondorioz gu ere zigortuak gara zigor erantsi batera... Ines del Rioren kasuaz gaiz, **beste 91 preso politikori zigorra luzatu diete**, ia 12 urteko luzapenak ere eman direlarik. Hau da 92 euskal preso politikori bizi osorako es-

petxe zigorra ahalbidetzen duen 197/2006 doktrina ezarri diete, eta 92 hauetatik 70 presok espetxean jarraitzen dute. 197/2006 Doktrina, beraz, gure senideak kolpatzeko eta mendekuaz eta sufrimenduaz baliatzeko beste mekanismo bat besterik ez da. Espetxe politika zehatz baten tresna, giza eskubideen urraketari paso ematen diona.

Euskal preso politikoei aplikatzen zaien beste salbuespeneko neurri bat da baldintzapeko askatasunaren ukatzea da. **144 euskal preso politikok baldintzapeko askatasunean aske egoteko epeak betetzen dituzten** arren, salbuespen neurri erantsien bidez bahituak dituzte eta preso jarraitzen dute bai estatu espainiarrean eta baita frantziarrean ere. (Preso hauen zerrenda eranskinetan aurki daiteke).

espetxeetan

eskubide urraketak

bestelako gertakariak

Isolamendua

Bakartze edo isolamenduaren aplikazio zorrotza euskal preso politikoen be-reizgarri bat da. Isolamendua edo bakartzea egoera oso zehatzetara zuzendu-tako neurria bada ere, espetxe arautegian (zigor puntual gisako neurritzat hartzen dena), gure senide eta lagunen kasuan ohiko edota behin-betiko neu- rri gisa aplikatzen da. Esan bezala, euskal presoek kasuan isolamendua edo mi- tarda maiz ezartzen den zigor bat da. Baina zenbait kasutan presoak agian isolamenduko moduluan egon ez arren bakarrik egoten dira, hau da, beste ki- derik edo euskal preso politikorik gabe egoten dira, eta kasu hauetan bakar- tuak daudela esaten da. Hona hemen momentu honetan Espainiako eta Frantziako espetxeetan bakarturik dauden preso politikoen zerrenda:

Euskal Herria	Zaballa	Txus Martin
Espainiar estatua	Córdoba	Sergio Polo (Isolamenduan)
	Puerto III	Xabier Rey
	Puerto III	Oscar Barreras
	Extremera	Sonia Jacinto
	Albocasser	Julen Etxaniz
	Puerto I	Arkaitz Bellon
	Foncalent	Garikoitz Mujika
Frantziar estatua	Joux La Ville	Marian Aramendi
	Joux La Ville	Julen Eizagirre
	Tarascon	Ibai Sueskun
	Bapaume	Kristina Goirizelaia
	Lyon Corbas	Jone Lozano
	Versailles	Ohiana Mardaras
	Bourg-en-Bresse	Ander Mujika

Miaketak presoeri eta jarrera oldarkorrak

PUERTO III ESPETXEA: Martxoan, espetxean ziegak hankaz gora utzi zizkieten hiru miaketetan, eta txakurrak ere sartu zizkieten ziegetara.

VILLANUBLA ESPETXEA: Valladolideko espetxeko modulu batean ere gauza bera gertatu zen, ziegetara sartu ziren miaketak egitera txakurrekin.

REAU SUD FRANCILIEN ESPETXEAN (Frantses estatua): Baita Reau sud Francilien espetxean, gizonen moduluan ere, espetxeko segurtasun neurriak nabarmen estutu dituzte, eta miaketa zorrotzak burutu dituzte espetxean, txakur eta guzti. Horrez gain, ezin dute besteen ziegetan sartu, arku pas behar dute solairu batetik ateratzerakoan edo bestean sartzerakoan, bisitetara hainbat gauza ateratzeko debekua ezarri diete...

ALBOLOTE ESPETXEA: Granadan dauden emakumezko euskal preso politikoek, martxoaren amaieran, miaketak jasan dituzte tartean kristala zutela egingako bisiten ondoren. Beraiek miatzeaz gain, ziegak ere miatu zizkieten. Maritxu Uzkudunen kasuan, aurrez aurreko bisita izandakoan ere ziega miatu zioten, eta berari miaketa zorrotza egin zioten.

ALMERIA ESPETXEA: aurrez aurreko bisitetatik bueltan miaketak egiten dizkiete. Gainera, ohartu dira beraiek ez daudenean, ziegetan sartzen zaizkiela noizik eta behin.

Aipatutako miaketez gain, beste hainbat espetxetan ere izan dituzte miaketak: **Navalcarneron, A Laman, Badajozen, Granadan, Valladoliden, Osnyn...**

Zuzenketa: Martxoko hilabetekarian publikatu genuen informazio hau miaketak senideek izan zituztela esanez, baina, presoek jasan zituzten: **Jaen espetxeko** euskal preso politikoek aurrez aurreko bisita eta gero biluzarazi egin zituzten, batarekin, eta miaketan bata altxarazi zieten.

SEVILLA II ESPETXEA: tentsio uneak bizitzen ari dira bertan dauden euskal preso politikoak azken hilabeteetan. Bisita tartean kristala zutera zihoazen senideak miatu nahi izanarekin hasi zen, presoek ere miaketa zorrotzak jasan di-

tuzte, aurrez aurreko bisiten ostean miaketa integralak izaten dituzte, Arkaitz Bellonek jasotako jipoia, espetxera presoentzat senideek sartzen duten pake- teetan murrizketak izan dituzte, eta patiora atera ahal izateko ukimenezko mia- ketak ere egiten dizkiete, zenbait kasutan miaketak oso bortitzak izan direlarik (hau salatzekeo patiora atera gabe gelditu izan dira bertako euskal preso politi- koak).

Martxoko hilabetean **Arkaitz Bellonek jasotako jipoia** salatu genuen arren, xehetasun gehiago jaso ditugu jipoari buruz: Martxoaren 25ean Sevi- llan dauden euskal preso politikoak itxialdi bat burutzen ari ziren euren ziege- tan, Xabier Aranburuk Muret Seyssesen bizi behar izan zuen egoera salatzekeo. Egoera hau aprobetxatuz, funtzionarioak Arkaitz Bellon elorriarra ziegatik atera zuten, eta ukimenezko miaketa egin zioten. Bera paretaren aurka zeukatela, funtzionario batek barrabilak eta zakila bortizki ukitu zizkion. Bellonek horre- lakorik ez egiteko esandakoan, funtzionarioak berehala oldartu zitzaizkion. 72. artikulua aplikatu zioten eta oso bortizki lepotik heldu zioten, itolarria sortuz, eta arrastaka miaketa gelara eraman zuten. Tartean ukabilkadak eta belaunka- dak eman zizkieten. Miaketa gelara heltzean buruan eta giltzurrunetan kol- patzen jarraitu zuten. Bortizki biluzteko agindu zioten, oihuka. Galtzontzilotan dagoela, miatzekoe rabiltzen duten bata eskatu zuen, baina oihuka eta me- hatxuka jarraitu zuten funtzionarioek; paretaren aurka bultzatuz eta kolpatuz. Janzten hasi zenean, bidean galdu zuen zapata bat zuen, baina, beste zapata janztera zihoala, zapata ez janzteko agindu zioten. Oinutsik eta jertserik gabe, zigor ziega zikin eta hotz batera eraman zuten, eta horrela izan zuten gauera arte. Gauean manta bat eman zioten.

HUELVA II ESPETXEA: segurtasun arrazoiak argudiatuta egoera estutu diete: ziegan eduki ditzaketen gauzen kopurua murriztu diete, jarrera oldarkorrek jasan behar izan dituzte, etab.

BADAJOS EXPETXEA: Badajozen dagoen Kepa del Hoyok tarteka funtzionario baten jazarpena jasaten jarraitzen du. Azkenekoan, goizeko 4etan ziegako atean eduki zuen zarataka.

Komunikazio eskubidea

POITIERS VIVONNE ESPETXEA (Frantses estatua): Potiers espetxean bisita bi-koitzak asteburuetan izateko borroka planteamendua lantzen ari dira.

ALGECIRAS ESPETXEA: bisitara joandako zenbait senideek arazoak izan dituzte funtzionarioekin, espetxe kanpoan, mugikorrarekin senideak argazkiak egiten ari zirelako.

MURCIA II ESPETXEA: Urko Labeaga eta bere bikotea aurrez aurreko bisita in-timoetan abisatu gabe sartzen ziren funtzionarioak.

ALBOCASSER ESPETXEA (Castelló): preso sozialek 10 dei egin ahal dituzten arren, euskal preso politikoek 8 dei besterik ezin dituzte egin.

NAVALCARNERO ESPETXEA: arazoak dituzte argitalpenekin. Hasiera batean depositu gabe zetoze la argudiatuta, baina, honen inguruko kexa irabazi ondoren ere, berdin kentzen dizkiete beste aitzakia batzuk erabiliz.

ARANJUEZ ESPETXEA: Aranjuezen hurrekin dauden presoek lortu zuten umeekin kristal gabeko bisitetara ateratzea, hau da, umeek beraien senideak kristalarekin ez ikustea lortu zuten Aranjuezeko amek. Orain, atzera pausu bat eman eta esan diete apiriletik aurrera, kristaldun lokutorioetan egin beharko dituzte bisitak.

Eta Aranjuezen dagoen Alicia Saez de la Cuestak bere bigarren alaba atera behar izan du espetxetik, apirilean hiru urte bete dituelako.

VALENCIA III ESPETXEA: Valencia III espetxean amak behartuta daude beren haurrak hartzaindegira eramatera (beste modulu batera). Eta goizetan, 08:30ean behartuak daude haurrarekin patiora jaistera, egoera kontuan izan gabe (eguraldia, haurra lo dagoen...).

Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga presoak bikote dira eta espetxe berean jarri berri dituzte, **Foncalent**-en. Gorabehera administratibo ugari eta hainbat atzerapen pairatu ostean, 2011n ezkondu ziren. Handik aste gutxitara banandu egin zituzten. Geroztik, Olatz Brievako espetxean izan dute. Urte eta erdi hone-

tan epaileari eskaera ugari egin dizkiote, eta azkenean apirilaren 17tik espetxe berean daude. Zoritxarrez ez dakigu behin-behineko erabakia ote den, edo behin-betiko geratuko den bertan.

EPPKren dinamika espetxeetan

Martxoan eta apirilean zehar ohikoak diren espetxeetako dinamikez gain, beste **hainbat dinamika** (barauak, itxialdiak, plantoak, gutun bidalketak, espetxeko janariari ukoak, elkarretaratzeak, enkarteladak, omenaldiak...) burutu dira **Oscar Barreras eta Arakitz Bellonen jipoiak, eta batez ere, Angel Figeroaren eta Xabier Lopez Peñaren heriotzak salatzen**. Aipatu, Fleuryn (Lopez Peña ospitaleratu arte bertan zegoen) martxoaren 31n plantoa egin zutela eta bertan euskal preso politikoek eskatu gabe, 53 presok parte hartu zutela.

Azken ostiraletan euskal preso politikoak dauden espetxe guztietan **Euskal Presoak Euskal Herrira** dinamika burutzen dute. Espetxe guztiek dinamika propioa dute. Espetxe gehienetan espetxearen janaria errefusatzeko dute, nahiz eta, bestelako ekimenak ere burutzen dituzten: baraua, Euskal presoak Euskal Herrira.

Azken aurreko ostiraletan baraua burutzen dute euskal preso politiko guztiek **197/2006 doktrina** bertan behera geratzeko eskatuz.

iheslariak

Apirilaren 1ean, **Joseba Vizan Gonzalez errepresaliatu politikoaren Jose Marcos aitagarreba hil zen**, Rio de Janeiro hirian, bihotzeko bat izanda. Marcos Brasileran joan zen bere emaztearekin batera, Joseba Vizaren atxilotetaren ostean. Vizan urtarrilaren 18an atxilotua izan zen. Senar-emazteak bertara joan ziren bere familia lagundu ahal izateko egoera zail horretan.

Rio de Janeiroko **kontsulatu espainiarrak** eta Brasilen dagoen **Espainiako enbaxadak** edozein laguntza mota edo asistentzia **ukatu zieten** Jose Marcosen senideei; horrek familiari izugarritzko arazoak eragin zituzkiolarik gorpuren aberriratzea lortzeko egin beharreko tramiteak egiteko orduan. Kontsulatuak ez zuen zigilatu nahi izan bere senideek gorpua jasotzeko behar zuen dokumentua; ondorioz, 72 orduz itxaron behar izan zuten gorpua "identifikatu gabeko" bezala jasotzeko. Azkenik, Jose Marcosen, gorpua beilatoki batera eraman ahal izan zuten, gorpua aberriratzeko, Brasileko autoritateei esker. Familiak Espainiako kontsulatuaren jarrera dela eta, azken bi egunak oso gogorrak izan direla adierazi digu, eta horregatik eskertu dute Brasileko autoritateek izandako jarrera.

senide eta lagunak

Sakabanaketak eragindako istripuaK

Martxoaren 30ean, Topas (Salamanca) espetxera **Jon Crespo** galdakarra bisitatzeraz zihozen bi lagunek istripu bat izan zuten. Zorionez beraiek ez zuten kalterik izan, bai ordea autoak. Hala ere, bisita burutu ahal izan zuten.

Apirilaren 20an, larunbatean, **Bigarren Ibarra** preso bilbotarraren alabak eta anaiak istripua izan zuten eguerdian. Gasteizen, Lopidanan beste auto bati pasatzen utzi behar zioten lekuan, auto bat kolpatu zuten. Ibarren anaia ondo dago, baina, alabak mina hartu zuen gerrikoarekin eta toraxeko traumatismoa du. Bisitara zihozela izan zuten istripua. Bigarren Ibarra Monterrosan (Lugon) dago preso. Azkenean, zorionez bere senideek Monterrosora iritsi eta bisita egin ahal izan zuten. Honakoa sakabanaketak 2013. urtean eragin duen laugarren istripua izan da, eta istripu hauek 9 senide eta lagunak jasan dituzte.

askatasunak, espetxeratzeak eta leku aldatzeak

askatasunak

Maite Diaz de Heredia (Gasteiz), apirilaren 15ean. Zigorra beteta. Behin-behinean beste kasu bategatik.

Iñaki Fagoaga (Lesaka), apirilaren 18an. 20 urte espetxean igaro ostean.

Beñat San Sebastian (Bidart), apirilaren 20an. 8 urte espetxean igaro ostean.

Naia Lacroix (Senpere), apirilaren 23an.

Itxaso Legorburu (Gasteiz), apirilaren 30ean.

espetxeratzeak

Arkaitz de Ibero (Donostia), apirilaren 10ean. 4 urteko zigorra betetzeko. Egun Martuteneko espetxean dago.

Ekaitz Ezkerra (Donostia), apirilaren 19an. Segiko kide izatea leporatuta, zigorra betetzeko.

Aitor Olaizola (Donostia), apirilaren 19an. Segiko kide izatea leporatuta, zigorra betetzeko.

Adur Fernandez (Donostia), apirilaren 19an. Segiko kide izatea leporatuta, zigorra betetzeko.

Oier Lorente (Donostia), apirilaren 19an. Segiko kide izatea leporatuta, zigorra betetzeko.

Mikel Arretxe (Donostia), apirilaren 19an. Segiko kide izatea leporatuta, zigorra betetzeko.

Egoi Alberdi (Donostia), apirilaren 19an. Segiko kide izatea leporatuta, zigorra betetzeko.

Imanol Vicente (Donostia), apirilaren 24an. Segiko kide izatea leporatuta, zigorra betetzeko.

Nahikari Otaegi (Donostia), apirilaren 26an. Segiko kide izatea leporatuta, zigorra betetzeko.

Ieku aldatzeak

Destinu aldaketak

ESPANIAR ESTATUA

Arkaitz Bellon (Elorrio), Sevilla-tik Puerto I-era.

Leire Lopez (Beasain), **espainiaratua** Soto del Real-en.

Olatz Lasagabaster (Donostia), Brieva-tik Foncalent-era.

Lander Fernandez (Bilbo), **Italiatik** Espainiara **estraditatu**a izan da eta Soto del Real-en espetxeratu dute.

FRANTZIAR ESTATUA

Zigor Garro (Orereta), Fresnes-etik Saint Maur-era.

Ruben Rivero (Balmaseda), Villefranche sur Saone-tik Muret Seysses-era.

Mikel Albisu (Donostia), Lyon Corbas-etik Fresnes-era.

Xabier Aranburu (Ondarru), Muret Seysses-etik Lyon Corbas-era.

Diligentziak

ESPANIAR ESTATUA

Jokin Sancho (Iruñea), Zuera-etik Iruñea-ra.

Iñigo Zapiain (Bilbo), Aranjuez-etik Jaen-era.

Santos Berganza (Amurrio), Zaballa-tik Villena-ra.

hilabeteko gaia

Ekainak 1-2: Elkartasun asteburua



**HTX
ROCK15**
HATORTXUROCK



HTX ROCK15
HATORTXUROCK

Atarrabian, Ekainak 1

Hatortxu Rock 1999. urtean sortu zuen musika atsegin zuen lagun talde batek. Errepresaliatuek eta haien senideek jasaten zituzten era-soak, trabak eta bidegabekeriak ikusita, salaketa lana egiteko eta bide batez sufrimendu guzti hori arintzen laguntzeko helburuarekin ekin zioten jaialdiari. Eta hasieratik, bere sorreraren lehen unetik, amaiera data aurreikusi zioten Hatortxu Rock ekimenari: errepresaliatuak etxeratzean eta haien senideen sufrimendua amaitzean, Hatortxu Rock-ek azken kontzertua egingo litzateke. Behingoz denak etxean egongo garen eguna ospatzeko kontzertua, hain zuzen ere.

Tamalez, Hatortxu Rock-ek aurtengo ekainaren 1ean 15 edizio beteko ditu. Munduko edozein jaialdik harro ospatuko luke bere 15. urteurrena baina gure aburuz, ez daukagu ezer ospatzeko. Hatortxu egiten den urte bakoitzak agerian uzten du errepresaliatuen eta haien senideen sufrimendua bere horretan dirauela (edo areagotu egin dela!). Beraz, arraroa dirudien arren, ez gaude batere pozik eta ez dugu ezer ospatuko.

Dena den honek guztiak ez digu indarririk kentzen, ez zaizkigu lan egiteko gogoak murrizten... ez dezala inork gaizki ulertu! Gu azken Hatortxu Rock-a egiteko irrikitan gaude,



**HTX
ROCK15**
HATORTXUROCK

HATOR **NESKA MUTIL** ETXERA

EKAINAK 1 ENTRECEMENTERIOS ATARRABIA

**FERMIN
MUGURUZA**
KONTRAKANTXA

**BERRI
TXARRAK**

RIOT PROPAGANDA
LOS CHIKOS DEL MAIZ + HABEAS CORPUS

LA JODEDERA | **IHESKIDE**

DJ. JOTATXO



ATE IREKITZEA

18:00

EZ DA KRISTALEZKO EZ PLASTIKOZKO BOTILARIK ONARTUKO
NO SE PERMITIRÁN BOTELLAS DE PLÁSTICO NI DE CRISTAL

LAGUNTZA

AURREZ **20€**

BERTAN **25€**

WWW.HATORTXUROCK.ORG
ETA OHIKO LEKUETAN
SALGAI



INFO



MAPA

GPS
(N) 42° 49' 38.0526"
(O) -1° 36' 29.7288"

15 EDIZIO ZUEK GABE
.000 KILOMETRO ZUEKIN

naiz:

LAGUNTZAILEAK



berria GARA

WWW.HATORTXUROCK.ORG

egun horrekin zoratzen amesten dugu baina era berean oso argi dugu lanean jarraitu behar dugula. Azken errepresaliatua etxean izan arte, azken senidearen sufrimenduarekin amaitu arte, Hatortxu Rock jaialdia egingo dugu. Hutsik egin gabe, behar duten laguntza guztiak ezin duelako inoiz hutsik egin.

HATORTXU ROCK 15

EGUNA: Ekainak 1

LEKUA: Atarrabia (Entrecementorios)

ORDUA: 18:00etan

SARRERAK: 20€ aurretik
25€ bertan

TALDEAK:

LA JODEDERA: jatorri kubatar sakona duen taldea da, taldekide batzuk euskaldunak dira, Cubakoak bestek. Letra irigarriak eta erritmo alaiak egiten dituzte, eta horregatik beraien kontzertuak benetako festa bilakatzen dituzte.

RIOT PROPAGANDA: Habeas Corpus madrildarrak eta Los Chikos del Maiz valentziarren artean sortutako proiektua da Riot Propaganda; Los Chikosek Habeasekin batera egin zuten T.E.R.R.O.R.I.S.M.O. kantari esker sortu zen elkarlan hau. Agita-

zio politiko eta musikalerako proposamen gisa batu dira. Habeas Corpusen musika eta potentzia, Los Chikos del Maizen lirika garratzaren nahasketa bizitzeko aukera izango dugu Atarrabian Hatortxu rock 15ean.

FERMIN MUGURUZA KONTRAKANTXA: Kortatu edo Negu Gorriak legendazko taldeetako frontmana, 1999tik bakarkako musika ibilbide oparo eta koherenteko protagonista; hamabost urte eta gero ospakizuna egitea erabaki du eta CD berria kaleratu du, Radar FM 1999.2013; bere bakarkako ibilbidea laburbiltzen duten 18 kantuz osatua.

BERRI TXARRAK: 1994an hasi ziren eta Hatortxu Rock jaialdiaren lagun zaharrak dira. Berri Txarrak, lehen egunetik euskaraz abesten lorpen gehien izan dituen taldea da eta Euskal Herrian nortasun handienetakoa duena. Hasierako taldekideen osaketa aldatu bada ere, (Rubiok, baxujoleak, 2008an utzi zuen taldea, eta 2010ean Aitorrek, baterajoleak), Gorka Urbizu karismatikoak, David Gonzalez (baxujolea) eta Galder Iza-girrek (baterajolea) dena emango dute ekainaren 1ean Atarrabian, ohi duten bezala.

IHESKIDE: 2004an sortu zen Eloorrion. Street punk estiloko taldea,

sasoi betean daude eta poliki poliki Euskal Herriko jaialdi handietan euren lekutxoak aurkitzen ari dira. Beraien inguruan dituzten injustizien berri ematen dute. Bidegabekeriak gertutik ezagutzen dituzte gainera, taldeko baxujolea atxilotu, torturatu eta kartzeleratu baitzuten. Orain laugarren diskoa aurkezten ari dira: "Iheskide... irabazi arte! (2012).

Hatortxu Rock osatzen dugun boluntario guztien partetik, ekainaren 1ean Atarrabian egingo dugun 15. ediziora hurbiltzeko gonbitea luzatzen dizuegu. Arestian esan bezala, errepresaliatuek eta haien senideek eman ahal diegun laguntza osoa behar dute. Zatoz Atarrabiara eta zoko ilunenean ere, entzun dezatela gure elkartasun ohiua:

hator hator neska-mutil etxera!!



INFORMAZIO GEHIAGO:

- www.hatortxurock.org
- <http://facebook.com/hatortxurock>
- <https://twitter.com/Hatortxurock>



Oiartzunen, Ekainak 2

Euskal gizartean bada kezka eta ardua nagusi bat, non euskal herritar askoren errealitate gordin bilakatu den urteen poderioz. Bada, etxetik urrun (espetxean, ihesean, erbestean ...) dituzten senide eta lagunak ikusi ahal izateko izugarrizko trabak bizitzen dituzten hainbat herritarren errealitateaz ari gara.

Hartara, EUSKAL HERRITARRON OINARRIZKO ESKUBIDEAK errespetatzea ezinbesteko da, sakabanaketarekin, urruntzearekin eta etxetik urrun bizi beharrarekin amaitzea alegia. Euskal Herritarron oinarrizko eskubideak errespetatuak direnean, urraketa egoera honi buelta eman ahal izango zaiolako ... (Gatazka politiko honen konponbidearen parte diren heinean, horretan aurrera egiteko eta oinarrizko urrats bat emateko ...)

Errealitate horri buelta emateko asmoz, jaiotzen da LASTERBIDEAN nazio elkartasun lasterketa:
Egoera horretan aurkitzen diren se-

nide eta lagun en oinarrizko eskubideen bermearen aldeko lana bideratuko dugun askotariko herritar talde bat gara. Euskal Herritar guztion berehalako etorkizunean, herritar guztion eskubideen aldeko lana egitearen aldekoak alegia...

Etixerat elkartearen helburuekin bat egiten dugun herritar talde bat gara, baina gertuko zaigun esparrutik, hots, kirolaren mundutik, egoera honi ekarpena egiteko asmoz dihardugun herritarrak gara.

Asmo honekin bat egiten duen edonor gonbidatzen dugu egitasmoan parte hartzera, baita bertan bakoitza bere eremua astinduz, atxikitzea eta berau bultzatzea bilatzen dugu (ekimen irekia, eta parte hartzailea baita). Apustua eta alde zurretik girotzeko jarri dugun irizpidetako bat bada, errepresaliatu bakoitzetik behintzat 2 gertuko, lagun edo senide eramatea eta izena ematea Oiartzunen LASTERKETA NAGUSIAN parte hartzeko. Beraz, 1.500 bat lagun ekarri nahi di-



tugu Oiartzunera 8 km-klo ibilbidea egitera. Beraz, bakoitzak bere inguru astizdu dezan!!

LASTARBIDEAN NAZIO ELKARTASUN LASTERKETA

Aurten (2013) Oiartzunen hasi eta urtero Euskal Herriko txoko ezberdinetan ospatzea helburu duen nazio elkartasun lasterketa, korrika-saio herrikoia.

Abian jarri dugu LASTARBIDEAN herri ekimena eta aurten jaio den ekimena izan arren, egoera aldatzen denean, hots azken senide edo lagunak bidaiarik egin behar ez due-

nean, bertan behera uzteko eta ahalik eta lasterren desagertzeko asmoz jaio gara.

Lasterketa horrekin astebururo milaka senidek egiten dituzten KMak zein milaka KM-tara daudenen (eta etxera bueltatu ezin direnen) gertuko en egoera islatu nahian gaude, kilometroen eta distantziaren arteko parekotasuna eginez.



Jaia eta kirola uztartzen dituen urteroko elkartasun eguna izatea du helburu. Eta korrika egiteaz gain, bestelako eskaintza zabala aurkezten dugu:

Ekainak 2, Oiartzun



lasterbideam

nazio elkartzaren lasterketa



09:30-10:30:
Lasterketa txikiko izen ematea, herriko enparantzán.

10:00-11:00:
Lasterketa nagusiko dortsal banaketa, kontsejupe plazan.

11:00:
Lasterketa txikiko hasiera.

12:00:
Lasterketa nagusiko hasiera.

13:00:
Sari banaketa.

13:30:
Etxeraten ekitaldia.

14:30:
Bazkari herrikoa (Elorsoro kiroldegian).

16:00-17:15:
Musika taldeak zuzenean (Elorsoro kiroldegian).

17:30:
Herri kirolak eta kirol erakusketak, herriko plazan.

*Eta egun guztian zehar:
Txozna, trikitilariak eta herri animazioa.



*IZEN-EMATEAK

Lasterketa haundia: www.kirolprobak.com webgunean, Maiatzaren 19ra bitartean (lehendik bukatu ezean).

Lasterketa txikia: egunean bertan 2 euroren truke.

www.lasterbideam.com

